

BERMEOKO URI TXIT NOBLE ETA LEIALAREN ARMARRIA ERABILTEKO ARAUAK IPINTEN DAUZAN UDAL ORDENANTZEA

SARREREA

Udalerri baten armarrria, haren historiaren oinarritzko kontakizunei aplikautako irudikapen alegorikoa izaten da. Sinbologia egokia erabiliz eta heraldikearen arauak betez, herriaren historian jazotako gertakizunik garrantzitsuenak islatzen dira bertan.

Guzti hau kontuan izanda berregin da Bermeoko Uriaren armarrria, haren osatze eta antolatze heraldikoa onartzen dauan bagilaren 6ko 1373/1968 Dekretuaren sarreran bertan esaten dan moduan.

Otsoek, bizardun buruak, baleontziak bale eta guzti, testuak, etab., Bermeoko historiaren gertakizunak eta zertzeladak agertzen dauz era enblematicoan: herribildu modura eratu izana, Bizkaiko Buru izatea, arrantzeari lotuta egon izana beti, eta, gure lurralde historikoko herri guztien artean lehentasuna izan ebala.

Orokorra eta usadiozkoa da, herri administrazioetan armarrria erabiltea administrazio horren agirietan, herria identifikatzeko, eta, bai euren artean, zein administrazio barruan nahiz herritarrakaz ezaugarri bat erabilteko.

Honelako sinboloek errespetu guztia merezi dabe, eta, era zuzenean erabiltea. Horregaitik, eskumen honen barruan erabilpena erregularizatu beharra dago.

Gure herriaren armarrriari jagokonez, 1968. urtean legalki onartu zan une beretik, erabilerea gero eta handiagoa izan da, bai udal administrazio barruan eta bai beste edozein agerpen sozial zein herrikoan. Enpresa pribatuak be

badagoz euren publizidadean erabilten dabena, baita, erakunde, talde eta partikularrek be erabilten dabe gure ikur heraldikoa euren gauzetan eta zabalkunderako eta propagandarako materialetan.

Guzti hori, pozgarria izan leiteke, baina, denboreagaz, gure armarrriaren benetako diseinua eta osaketea aldatzen joan da, eta, horreek oinarritzkoak eta funtsezkoak dira heraldika zientzia barruan. Hortik abiatuta, gaur egun, herrian (udal administrazioan bertan be bai), Bermeoko Armarrriaren hainbat eredu ezbardin aurkitu geinkez hor eta hemen, asmorik onenagaz eginak diran arren.

Bermeoko Udalak, armarrria normaldu eta erregularizatu beharra ikusi dau, beti be, armarri hori deskribatu eta antolatzen eban Dekretuak ezarritakoa kontuan izanda. Horretarako, Antolakuntza, Informatika eta Kalidade Saileko teknikariek, behar izan daberen kanpoko aholkularitzeagaz, armarrriaren definizio ofiziala, adierazpen grafiko bakarrean egokitu dabe. Ahalik eta zehatzen jarri dira margoak eta esmalteak, lan hau enpresa espezializatu bati adjudikatuz.

Lan honek ez deusku erakusten, ez, aldaketa handirik ez erraz ikusten danik, ez horixe, ñabardura eta zehaztasun batzuk baino ez diralako ikutu, horrela, begiratzen badeutsagu, ez dogu ia ezer be susmatuko.

Holan ba, 1968ko Dekretuan dagoan deskripzio ofizialagaz eta normalizatzeko egin dan lan zehatz honegaz, orain, guztiz itxuratuta geratu da, benetako erabilera bateratua eta zuzena izango dauala bermatzeko.

Guzti horregaitik, Bermeoko Udalaren osoko bilkureak, Ordenantza hau onartzea erabagi dau:

- 1. Artikulua.-** Bermeoko Uriaren armarrriaren berezitasuna eta erabilerea arautzen dau ordenantza honek.
- 2. Artikulua.-** Armarrria, Udal-Oihalagaz batera, uriaren ezaugarriak dira, eta zor jaken errespetua gorde behar jake.
- 3. Artikulua.-** Bermeoko Armarrriaren osaketea, bagilaren 6ko 1373/1968 Gobernazino Ministerioaren dekretuak (bagilaren 24ko EAO) zehaztutakoa da, eta, 1981eko urriaren 2ko Tokiko Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiaren erabagiak dinoana kontuan izanda, berezitasun honek daukatz:

“Escudo de oro, ballenera de sable a la diestra, con cuatro remeros bogándola, y a su proa un arponero erguido, en actitud de lanzar el arpón a una ballena, de sable, también a la diestra, puestos sobre ondas de azul y plata. En jefe, dos lobos de sable pasantes, a la diestra y en faja, superados de la cabeza barbada. Bordura de gules, cargada de la leyenda “Stemma Proderi in Primis Bermei”, en letras de sable.”

2.- Armarrriaren margoak edo esmalteak, Pantone sisteman zehaztuta, honako honek dira:

Gules edo gorria, azpan: Pantone Red 032.

Armarri hondoko urrea: Pantone 871.

Olatuen zilarra: Pantone 877.

Olatuen eta balearen txorrotadearen azur edo urdina: Pantone Blue 072.

Arraunlarien eta arpoilariaren jake eta fraka-narruen berdea: Pantone 3292.

Arraunen marroia: Pantone 1605.

4. Artikulua.- Armariaren erreprodukzio guztiak, bai margoetan zein zuri-baltzean egiten diranek, eredu ofizialaren diseinuaren ezaugarri guztiak bete behar dabez, osoko bilkuran onartuta dagozan ezker.

5 Artikulua.- Jagokon udaleko sailak izan beharko dau udal armariaren kontrola, baita, ordenantza hau zuzenki apliketan dala zaintzea be bai.

6. Artikulua.- 1. Uriko armarria beti agertu beharko da:

- a. Bermeoko udalean ofizialki erabilten diran agirietan, inprimakietan, zigiluetan eta orriburuetan.
- b. Udalak emondako titulu ofizialetan.
- c. Horretarako eskubidea daben udal agintariek erabilitako ikurretan.
- d. Erabilera ofizialeko leku, gauza eta ibilgailuetan, euren izakera ordezkagarriagaitik, euki beharra erabagiten danean.
- e. Erabilera ofizialekoak izan ez arren, udalak babestu edo baimendutako zerbitzu publikoa emoten daben ibilgailuek, beti be, hori holan izatea erabagiten danean.
- f. Udalak argitaratzen dauzan aldizkari, argitalpen, eskuorri, kartel eta informazio elementu guztietan, pasabideak seinalizatzeko plaketan, eta publizidade, propaganda, eta kultura zein turismo zabalkunderako gai guztietan.
- g. Udalaren langile-taldeek erabili beharreko uniforme eta jantzi guztietan, udaltzaingoak izan ezik. Honek bere logotipo propioa erabiliko dau.

2.- Udal erakunde autonomoek, euren sinbolo eta logotipo propio ezarririk ez daukien bitartean, uriko armarria erabiliko dabe.

Aldi berean, Bermeoko Bake Epaitegiak, uriko armarria erabiliko dau, bere inprimaki eta agiri guztietan, legalki beste ezereen bat erabili beharrik ez daukanean.

7. Artikulua.- Aurreko artikuluaaren 1. zenbakian azaldutako gauza guztiak sustatu, erabili edo egin behar dabezan udal sailek, armariaren eredu ofizial informatizatuaren kopia bat eskatu behar dabe lehenago

Antolakuntza, Informatika eta Kalidade Sailean, erreproduzidu ahal izateko.

- 8. Artikulua.-** 1. Alderdi politikoek, sindikatuek, alkarteek, taldeek edo beste edozein erakunde pribatuk ezin izango dabe sinbolo edo sigla nagusi modura erabili.

Edozein motatako produktu edo salgaietako ikur modura armarria erabili ahal izateko, Alkatetzeak aurretiaz baimena emon beharko dau.

2.- Aurreko zenbakian dinoana kontuan hartuta, ez da aplikauko udalean alderdi politikoek normalean erabilten daben dokumentazino eta materialarentzat.